

USURBIL UDALERRIKO  
SAGASTIEN INBENTARIOA  
ETA EGUNGO  
SAGAR EKOIZPENAREN  
ZENBAIT ALDERDI.



Leire Jauregi Aizpurua

2013

## 2.2 SAGARDOGINTZAREN HISTORIA

Sagardoaren jatorriari buruzko iritzia eta teoria asko egon arren, historialari gehienak bat datoz sagardoa Kristo aurreko urteetan sortu zela esatean; horren adibide argia aurki daiteke Egipto, Bizantzio eta greziar zibilizazioen garaian; izan ere, aro haien inguruan ditugun testuetan, opari edo eskaintza baliotsuen truke sagarrondoak oparitzen ziren.

Euskal Herriko sagardogintzaren jatorriaren inguruan ikerketa ugari egin da, baina oraindik ez da ondorio garbirik lortu. Historialari batzuek diote sagarra Afrikatik sartu zela; beste batzuek uste dute sagarra naturalki inportatu zela, hegazti migratzaileen birtartez. Eta sagardoari dagokionez, badira ere esaten dutenak garai bateko euskaldunek erromatarrengandik ikasi zutela sagardoa egiten; beste batzuek, berriz, pentsatzen dute arabiarrek sartu zutela sagardoa Euskal Herrian...



Usurbil herria ezaguna izan da, eta gaur egun ere bada, sagardogintzari esker. Urteetako usadioak mantendu dituzte herrian sagardoaren prozesuan, eta horren ondorio da hainbat sagardotegi aurkitzea Usurbilen. Herriko sagardogintzaren garrantzia islatua agertzen da urtean behin ospatzen den Sagardo Egunean; izan ere, Euskal Herrian egiten direnetan garrantzitsuenetakoa da. 1981. urtetik, urtero, maiatza aldera ospatzen da, eta 2012. urtean, adibidez, 44 sagardotegik parte hartu zuten.

Ondorengo testua Ignazio Gallastegik idatzitako liburu batetik ateratakoa da, 1917. urtean argitaratu zen *"Sagardotarako sagar onak izateko sagastiak nola jarri ta zaitu bear diran"* liburutik hartu den zati bat da alegia, eta hauxe dio sagastien inguruan:


"...Gipuzkoa'n, ondasun asko biltzen da sagastiak dirala bide; ala ere, ordea, gure nekazariak ez dituzte bear bezela erabiltzen sagasti oiek."

"Utsune ori betetzeko, aukerazko erabaki bat artu zuten nekazaritzari dagozkion gaiak aurrera eramateko izendatuak dauden Diputadu jaunak. ¿Zein erabaki da ori? Sagastiak, sagar asko eta ona eman dezaten, nola erabilli bear diren nekazariak jakin-eraztea; orotarako, liburucho batean erakuspen argiak jartzeko esan zioten Diputadu oiek Fraisoro deritzaion echearen zuzendariari..."



Buztin


4.3. grafikoan, mahairako sagar-barietateak bereizten dira. Arlo honetan gehien nabarmentzen dena "Errege sagarra" da, sagardotarako erabiltzen duten nekazariez gain, beste 9k barietate hau landatua baitute. Hurrena "Pelestrina" da, zazpi lursailetan aurki baitaiteke. "San Juan", "Elstar" eta "Urtebi haundia" bi kasutan atzematen da; aipamena egin behar zaio "Urtebi haundia"-ri: nekazari gehienek sagardotarako erabiltzen dute sagar-barietate hau, baina badira batzuk transformatu gabe jaten dutenak ere (lehen esan bezala, "Errege-sagarra"-rekin gertatzen da egoera antzekoa). Eta, azkenik, kasu bakarretan aurkitu dira barietate hauek: "Royal Gala", "Golden", "San Pedro", "Santiago sagarra", "Granny Smith" eta "Cox's Orange"; azken hori polinizatzeko erabiltzen da.



4.3. Grafikoa. Mahairako sagar-barietateak

Aztertutako sagastiek, 4.4. grafikoan ikusten den bezala, oso adin desberdinak dituzte. Hala ere, nabarmentzekoa da 10 urte baino gehiago dituzten sagastiek % 63 osatzen dutela. Sagasti gehienak 30-40 urteko tartean daude; izan ere, garai haietan, Gipuzkoako Diputazioak diru-laguntzak ematen zituen sagar-zuhaitzak erosi eta landatzeagatik. 2-4 urte, 4-6 urte eta 8-10 urteko tartean dira sagasti gutxien Usurbilen.

4.7. grafikoan ageri den bezala, inkestatutako nekazarien sagastien % 78 basoan landatua dago; hau da, enborretik ateratzen diren 3, 5 edo 7 adar nagusi dituzte (kasu gehienetan, 3 izaten dira). Hala ere, badira sagarrondo batzuk 3 adar horiek ongi definituak ez dituztenak. Basoaren ondoren, erdiko ardatza da gehien erabiltzen den landaketa-forma. Honen atzetik, palmeta eta oraindik formarik ez duten zuhaitzak datoz; izan ere, sagasti batzuk gazteegiak dira jada forma edukitzeko. Azkenik, formarik gabe da sagastien % 2.




4.7. Grafikoa. Sagastien landaketa-formak

Mozolua



Inkestatuak izan direnen artean, 20 pertsonak diote urtero egiten dutela gutxienez neguko kimaketa, eta, haien artean seik udakoa ere egiten dute. 15ek egiten dute neguko kimaketa, baina ez urtero, gutxiagotan. Bi nekazarik oraindik ez dute inausketarik egiten, zuhaitzak gazteak direlako. Eta batek dio ez duela inaussten inoiz. 4.8. grafikoan ageri dira datuak:



4.8.Grafikoa. Sagarrondoien inausketa-formak